

3.

bertso

lehiaketa

2003 - 05 - 18

**Urdinarbeko Bil Xokua alkarteak antolatü dü,
hirugerren aldikoz, galto hau zabaltüz :
"norbaitek erran deizü eüskararen jakiteak ez
düala deüsere ekarten; zer diozü hortaz?"**

**Bertsoak entzünarazi ondoan, musikaren egünaren
goizan, lehen hiru sariak jakin dira.
J L Davant, Laka, F Mihura eta B Soule epaile lanetan
egon dira.**

Ihardetsi nahi düt, ez niz dohakabe
Elebidün girela, eta etxen jabe
Ekintza güzietan, ez gira herabe
Nortarzüna gogoan, ahalketü gabe.

Jakitatea bada, mündüan hedatü
Mintzaje honekilan, da eneganatü
Alta bigabostetan, badüe zapatü
Bardin gizartea dü, ederki moldatü.

Altxatü behar dügü, orai egoera
Eüskararen ildo, beit doa behera
Gei honen aipatzeak, ene arabera
Ama mintzoari dü, emanen eskerra

Mintzaje baten hatsak, nork daki zertako
Bihotzetik bohatzen, axoldüentako
Arbasoek emanik, hitza denentako
Begira dezagün hau, bihar haurrentako.

Norbait horrek hor badü, zerbait goresgarri
Ikusi nahi nüke, gaü eskolan sarri
Eüskara aurkitürrik, bere altxagarri
Haurrak ere ondotik, ikastolan ari.

Jean Bordaxar
Lehen saria

Ostatüan nintzala denen trüfagarri
Eüskaraz dütalakotz manatü edari
Mozkor dira bena ez eüskaraz egarri
Aldiz ni egarri niz, beita osagarri.

Ez düt onartzen zure trüfa hain ozena
Ttipitik ez ikasi, ez da ene ogena
Gaü Eskolan niz, hau da xantza handiena
Eüskarak ekarten deit, azkar nortarzüna.

Üsü entzüten dügü, ez dü deüs ekarten
Bena eüskaraz ari harroki mintzaten
Altxor honen galtzeaz ez denak ohartzen
Hontarzün hori üztez, denek dügü galtzen.

Arbasoen jakile bezala segitzen
Ber giltzarekin gira gizartean sartzen
Eüskaldünak direno, Herria bizitzen
Indarra segürtatzen eta partekatzen.

Berexi gabe egin dezagün tratüa
Eüskaraz bizitzea da ene haütüa
Gü, hazten gütüana ez da mespretxüa
Galtegiten dügüna da errespetüa.

Gaü eskolako goi mailako ikasleak : B Sagardoi, F Jaragoien, J
Goienexpe eta Isabela Barreix erakaslea
Bigerren saria ex-aequo

Bihia alorrean ereitza ondoan
Haur ttipiaren hatsa amaren altzoan
Eüskaldün batentako eüskarak ahoan
Zer ote düan ekarten delarik galtoan
Hona adixkidea zer düdan gogoan.

"Eüskara hobe dela ütztá adio"
Horren erraileari erdara dario
Nik aldiz ez dütt entzün ez ja egündano
Eüskaldünik erraiten banüke hastio
Frantsesan jakiteak ez düala balio.

Jakitatea eder edo zoin sailetan
Bena lilitü gabe date auherretan
Gure hitza halaber da hasperenetan
Txori izana gatik trebe hegaletan
Kaiolaren barnetik dago auhenetan.

Ene mintzajeak zer dizakedan ekar
Zütarik entzütean nik bihotza nigar
Eüskaldün berri hoiek gazte eta sühar
Ene ama mintzoan dezela hitza har
Ekar egar otoia seküla ez eihar

Hitza eihartü gabe egia deizüt zor:
Eüskarak ezarri naü denboran ahalkor
Harek eskentzen eta nihaur nintzala gor
Orai aldiz badakit dela ezin agor
Eman eta zabaltzez gü girela altxor

Lagün mina halere ez düzü ogenik
Eziz nik zure aitzi ihonko aiherrik
Arrotz bagira nola zitzaket maita nik
Hülant zite gustüan ta entzün lehenik:
Ezagützeko maite behar da jadanik.

Detxeparen "Sautrela" beti gora jauzten
Haren eüskaraz zütüt orai agurtüren
Nahiz baliorik ez üsü entzün üken
Hura gabe segürra düzü honartüren
Ez nintzala ehiki heben agertüren.

Michel Etchecopar
Ahaidea: etxahun eta otxalde
Bigerren saria ex-aequo

Berriz hedatzen düzü bitriol mingarra
Norberari delarik neürtzea beharra
Errespeta dezagün hizkuntza zaharra
Gabea beno hobe dira bi hizkera

Ez badü deüs ekarten, ez dü deüs elkitzen
Hontarzün bat ez balitz, deizüt galtegiten
Nola da mentez mente oraino bizitzen
Alta kolpeak dütü, üsüxea jasaiten

Ez badü deüs ekarten, nola sendi herra
Madrile etsai dügü, barbaro segürra
Ta Parisek mespretxüz, lagüntza apürra
Elkibide bakarra, joaitea : Aurrera!

Gazte denboran zaütan berpiztü gogoa
Hegal bakotx nintzala ohartüz gaixoa
Hitzari lotü nintzan, hain zaütan goxoa
Geroztik egün oroz, maitatzen gozoa

Bai Eüskarak lekü bat behar dü denetan
Sortzetik hiltzealat, aküilü bizian
Herritik Mündüalat, mügak gaintitzean
Ta ene bihotzean, zure maitatzean

Isabela Barreix

Eüskarän jakiteak,deüs ere ekarten
Ez emaitèak zer ote, deikü haboro üzten
Herritarren artean, bortxaraz bazter baratzen
Arrazu txipienak, ordüan dira sortzen.

Gizonak helbürü, aberastarzüna
Eüskaraz mintzatzea, hortarik handiena
Haurrentako ez dadin, barat ogena
Etxekoek helaraz, hontarzün zühürä.

Ütürri agortüak, ez ihure hazten
Ele turrustak, oro debearazten
Egia bat zeikü, heben agertzen
Eüskarak gütüala, ontsa biziarazten.

Ipar eta Hego, biak dira aüzo
Mügan bi aldetarik, bat besteari so,
Harreman beroen, sortarazteko
Ama hizkuntza dügü, gure lagüntzeko.

Allande Davant
Ahaidea: xorrotxena

Zonbait aldiz ez dūgū, gure haur denboran
Lehen lehenik frantses, herriko eskolan
Entzūn gure errejent, gūzien ahoan
Ez dūala deūs ekarten, eūskarak bizian

Erakaslen erranak, fidelki behatū
Eskolako bidean, eūskara baztertū
Gazte hanitxen gisa, ez nintzan ohartū
Aita'men mintzajea, behar nūala galdū

Ezabatū ondoan, senditzen da mentsa
Ahotik ezkapirik, eūskararen hatsa
Arra biltzeko aldiz, gaitzago ũrratsa
Ordūan da ohartzen, zoin den aberatsa

Jakiteak ez da dū, deūs ere ekarten
Menperatzeak ez dū, kalterik egiten
Ez jakiteak ez dū, haboro emaiten
Eūskaldūn berri batek, deizūe erraiten

Atzo hainbeste jente, aurtenko korrikan
Eta Herri ũrratsen, ikastolen bestan
Nola pentsa eūskarak, ez dūala ordūan
Ez deūs ere ekarten, jenten bihotzean

Egūn lan eskentzeko, zonbaitek galtatzen
Haborokin bat dela, deikūe erraiten
Eūskal Herrin eūskaraz, dūe sūstengatzen
Ez dūala deūs ekarten, nik ez dūt sinesten

Bi hizkuntz jakitez zer, aberastarzūna
Gure baitan altxatzen, beitū bi gizona
Barnatzen ere deikū, gure nortarzūna
Mündūan zabaltzeko, eūskaldūntarzūna

Patrick Queheille

Gure euskara, jakiteak omen, eztüala deüsere ekarten,
Arrazu xüxen, zozo bezain hotz, sobera dügü entzüten,
Eüskalzaleek, goizetik arrats, lanari girela lotzen,
Maitatzen dügün, ama hizkuntza, haur ta lagüner hedatzen.

Eüskara dakizü, eta diozü, etzütüala aberasten,
Zure bizian, ez düzü sendi, xüxen zer lekü düan hartzen
Ama maitia, galdü düanari, erran eztila deüs galtzen,
Erran ordünko, konprenitüko, nola ziren hor herratzen.

Frantses, espainol, anaiek dioie, eüskara dela galdüren,
Haien gainetik, ingles azkarra, düelarik anaie geihen,
Erromanoak, ordü haietan, halaber mintzatü ziren,
Hen latiari, inperadore, dogü goraintzi ta amen.

Hori erranik, gure eüskarak, emaiten deit arrenküra,
Ohartürik niz, mündü batetik, galtzen dügüla lotüra,
Eüskara eztakit, ez guri fida, eijer izanik sü garra,
Fedea handi, dügülarikan, falta zaikü haritx egürra.

Bush et Sadam, dira bi bürü, hen zankapean bi mündü
Eüskara axolbe, gizarte berri, behar dügüla asmatü,
Algarrekilan, sortü herria, izanen dela baketsü,
Hitzar hitzeman, anaitarzüna, lehendakari tüzkegü.

Gure aitonak, eüskaldün zindien, etzünielarik haitatü,
Züen bizia, züen segida, eüskaraz düzüe pentsatü,
Züer esker da, bertsolari gei, baniz egün bilakatü,
Nahi zütiet, Urdinarbetik, ümilki orai eskertü.

Benat Etchebest

Balio zerbait badüanez
Orano gure euskarak?
Lema honen üngürüan
Beltz ditzagün paperak.
Hain lüzaz baliatü dügün
Hizkuntza zaharrak,
Tralala lala.. ..
Sorerazen bihozterak.

Balio ederreko gaüzak,
Merkatüetan kausitzen.
Urte batetik besteala,
Dirade desmudatzen.
Itxüraren apaintzea
Baizik ez düe egiten,
Tralala lala.. ..
Baitarik ez asetzen.

Arrusa baten lürrünak
Badüa ote baliorik?
Euskarak ere ez deikü
Beteko musarik
Nik badakit badela
Nehürtü ezin altxorik
Tralala lala.. ..
Euskara da haietarik

Ttittika Recalt
Ahaidea : ürzo bat jin izan da

Denboraren haizeak, erroak urratzen
Zaharrek hilkutzetan, hitzak begiratzen
Xiberoko gazteek, Euskara ez mintzatzen
Jeiki zite euskal haurra; hizkuntza altxatzen.

Euskaraz bizitzeko, ikasten hizkuntza
Gure kultura ez dadin, sekula izan hotza
Mintzaje zaharrena, geroaren giltza
Azken zübürüa gira, begiratzeko hiltza

Düala zazpi urte, sortü zen Eskiulan
Euskararen ikasteko, gogoia bihotzan
Ez atzaman irakaslerik, bost urte bürüan
Orai bi egün astean, denek lan eta lan

Eskiulako gaü eskolako bigerren maila: P Elbert, D Mendioudou, J
Lerdou, V Astabie, G Lechardoy, S Organbide, N
Chabalgoiti eta J Etxebarria erakaslea

Jenteek uste dizüe, eüskara hila dela
Ordüan gük erraiten: hori ez düzü hala

Eüskararen jakitea, ez dizü balio
Ikastea gaitz düzü, üsü bada zepo

Eüskaraz mintzatzea, ez da haboro moda
Politik, gaü eskola, baskoientako da

Egün heben gütützü, zerbait kantatzeko
Bontatea badügü, eüskara ikasteko

AEKlat joaitez, ez girade baskoi
Ixilik ta ez erran, astokeriarik otoi!

Hizkuntza bizi dügü, ez da ehortzirik
Haurrer ikas eüskara, egonen da bizirik

Mauleko gaü eskolako 2. maila : I Elichondoborde, L Etchetto, A Jelassie, MC
Hoquigaray, R Jenkinson, P Mendiboure, H Lanouguere, D Boirie
eta erakasleak : Maia Hoqui eta Maritxu Castillon

Gük pentsatzen dizügü, ez dela egia
Eüskaraz elestatzea, gure goiz argia
Gure bihotz indarra ta gure bizia
Zaharren eta gazten beti da ekia.

Eüskaldün izatea, zer gaüza handia!
Ixil hadi arrotza, sar ezak mihia!
Guretako fiertate, beitügü ikasia
Egiazko inoranta, arauz dük ber nahia

Idauzeko gaü eskolako ikasleak : G Lafitte, J Ahazpe, V Samalbide, G Lerdou,
P Lerdou, A Irigaray, M Beheti, A Carrique, S Ahazpe, P
Etchebarne, JM Armagnague eta erakaslea : M Davant

Egün batez Mauleko plazaren erditan,
Bi gizon ari ziren, zintzoki elestan,
Bata Mauleko seme, nausi espartinetan,
Bestea Gaü Eskolan, ebilten arratsetan.

Etxegorrik erraiten, euskara zerta(ra)ko?
Züberoatik elk eta, non dük baliatüko?
Anglesa dük hobe(re)na, mündüan sartzeko,
Eüska(ra) baizik emaitzez, ez hiz zabaltüko!

Bihotzean zizelatürrik, gaztean ikasia,
Aitetamek erakatsi, hontarzün handia,
Nola üt desagertzera, altxor preziatüa,
Gure arbasoen kültürüz, ahalketzen girea?

Züen mintzaje okerra, güti baliatürrik,
Erdi frantses biarnes, oro nahasirik,
Janbua kafeoleta, -a bat estekirik,
Eta bai hola hola, eüskal eleak sortürrik.

Parka euskara dügü, Europako ama,
Gure zorigaitza orai, gaztearen arrotza,
Kantu txapelketan bai, ta zer entelega?
Buhameak ere jeietan, frantsesez ahozka!

Lehenago eskolan, defendü aipatzea,
Lagünen lotsa ginen, xiri bat saria,
Egün ETB piztü, zer euskara berezia,
Eüskaldünen artean ere, ezin kunprenitzea?

Züek frantsesean trebe, eüskaraz gütiago,
Ahozkoan azkar bena, idazten apürrago,
Ama hizkuntzan idatz'ta, irakur ezinago,
Mündü hontan badea, gaüzarik tristeago?

Gure Frantzia handian, lan atzamaiteko,
Frantsesa jakin behar, eüska(ra) deüsetako,
Züen politika tzarra, begira züentako,
Frantses gira lehenik, frantsesa guretako!

Eüskaldün kültüraren, oinarri azkarra,
Eüska(ra) dügü lehenik, gure nortarzüna,
Mentez mente igaranik, betiere soka,
Oraiko gizaldiak, hautseko dügüa?

Mauleko gaü eskola, alfabetatze taldea : S Etchebest, P Etchebest, N Galant eta
erakaslea: Edurne Apezetxe.

Zer gai üluna haütatü düzü, bertso saioan Bil Xoko
Eüskal hizkuntza menperatzea, ez düela deüs ekarriko
Zer helbürü erran düenak gure, düdan ezarteko
Nontik jinik den eta nulaz den, bertan holaz baztertzeke

Xinan bularrak eritzen dira, otoi ez guri bihotza
Ez lizate medikü honik, egitez ere otoitza
Arbasoek ützi dauküe, paradisü baten giltza
Gük ifernüa ondokoeri, orai jaten bada hitza

Savoir le Basque, alors tu me dis, bientôt ça servira à rien
L'été prochain on va à Mendy, tu verras si ça fait du bien
Sans te raisonner, chacun son avis, je n'en aurais pas les moyens
Grâce à la langue, tu fais des amis, mais pas avec les mêmes liens.

Eüskal Herrian etxe güziek, ekarten bere izena
Nik sort-etxea Elixagaia, Eliza gainean dena
Mugor müga-doi huilanena, Ichuegi han da gorena
Ez dakiat aldiz ene lagüna, Zidane-ren ützülpena

Maulen rügbian düten entzütea, hau aspaldiko errana
Gazteek ez ber bertütea, Bildozen zübütik landa
Bena geroztik gure taldea, bota dü haratago müga
Bere baitan da sinestea, eramaiteko aitzina

Galto egileari orai azken biz pa hiru mezü
Ama mintzoa erran ezozü nurat juraiten ziren zü
Europako mendiak oro elürrez bete dütüzü
Urdinarben egün eder bat pasa düzüla errazü

Alain Mugardoi
Ahaidea: amodioa gauza trixtea, bihotzen higazailea